

GARBERA HANDITZEAREN GAINEKO INTERPELAZIO ZUZENA

EH Bildu udal taldearen bozeramaile Amaia Almirall Lopez de Luzuriagak, Udalbatzaren Organo Araudiko 97. artikulua ematen duen babes aintzakotzat hartu eta Garbera handitzearen gaineko **INTERPELAZIO ZUZEN** hau egin behar dio alkateari, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Gobernu Batzarrak onartutako 2016ko aurrekontu proiektuak 7.000.000 euro sartzea jasotzen du Garbera handitzetik.

Harrigarria da lursail jakin eta zehatz batetik hainbesteko diru sarrera izateko aurreikuspen hori izatea. Alde batetik, Plan Orokorren aurreikuspenak betetzeko asko falta delako oraindik. Eta bestetik, Eusko Jaurlaritza lurralde antolaketaz egiten ari den azterketa guztiek erakusten dutelako gaur egun den eskaintza nahikoa eta gehiegi dela eta ez dela komeni eraikigarritasunik handitzea. Eta baita hori baino gehiago ere: handitze horiek txarrak direla ere jotzen dute.

Ez dago ezeren azterketarik beste merkataritza garapenik behar dela dioenik. Hori dela eta, ez dakigu zer interes izan daitekeen esaten ari garen proposamen hori egiteko, Garberaren jabe den enpresaren interes nabarmenez gainera.

Hori dela eta, hauxe da gure **INTERPELAZIO ZUZENA**

- 1.- Zergatik jo da egokituz Garbera handitzea, Donostiaren interes orokorrentzat beharrezkoa edo komenigarria dela justifikatzen edo babesten duen txosten bat bera ere izan ez arren?
- 2.- Zer dela eta jaso da Gobernu Batzarrak onartutako 2016ko aurrekontu proiektuan eragiketa horretatik 7.000.000 euro bilduko direla, nahiz eta eragiketa onartu gabe izan eta proposamena lege aldetik bideragarria den ere jakin ez?
- 3.- Zergatik ez dira aintzakotzat hartzen Eusko Jaurlaritza alde horretatik egiten ari den antolaketa aurreikuspenak?

Donostia, 2015eko abendaren 4a

Izpta.: Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
EH Bildu udal taldearen bozeramailea.